# Gaurkoan

# Europa, kultur barrutia?

## (Inperioetatik Herrietara)

**Paulo Agirrebaltzategi (*)**

Urtarrilak 13 gaur. Merkataritzaren eta negozioen munduan sartuta ez gabiltzanontzat BFZ/IVA eta eurodiputatuak dira Europa batuaren (!) aurpegia. Barka, Euskadiko Orkestra ere Strasburg-en omen dugu gaur. Badugu, beraz, *kultur delegazioa* Europako Parlamentuaren urteberriko irekiera honetan bertan. Baina Europa horren izena oraingoz EEE (Europako Ekonomi Elkartea) da; eta horren goitizena, EME (Europako Merkatu Elkartua).

Europaren historia modernoa estatuen eratze eta indartzearena da. Ezaguna da horien eragilerik funtsezkoena boterearen (ekonomikoaren, politikoaren, kulturazkoaren) metaketa izan dela. Dinamika horren bi aurpegiak dira zentralismoa eta inperialismoa: batak boterearen erdirapena lortu nahi du, eta besteak boterearen hedapena. Bi ardatz horien gainean eraiki izan dira Europako estatu modernoak.

Jakina, zentralismoari eta inperialismoari kulturazko kutsua erantsi nahi izan diete: modernotasuna eta unibertsaltasuna izenez edertu nahi izan dituzte. Beren kultura modernoa eta unibertsala saltzen saiatu dira Europako estatuak, beren armada, konkistadore, misiolari, merkatari eta gobernadoreen bidez.

Europako estatuek beren munduzabaleko inperioak galdu dituztenean eratu da EEE/EME. Britainia Handiak bere inperioari eutsi izan balio, gaur ez zen EEEkoa izango. Estatu europarren interes ekonomikoak eta bestelakoak defenditzeko eratu da «hamabien kluba». Beste arrazoi handirik bilatu beharrik ez dagoela iruditzen zait.

Horregatik, Ekonomi Elkartearen gainetik leudekeen «Europaren Batasuna» eta «Europaren Kulturazko Identitatea», etab. aldez ondoren sortutako asmaketa ideologiko eta intelektualak dira. Ez nago, hasteko, asmo horien aurka; baina gerta daitezke, gertatu, merkatu-Europaren estalgarri hutsak.

Egia esan, penagarri samarrak gertatzen dira Europako intelektualen ahaleginak, beren ahotsa entzunerazteko eta beren kultura europarraren mezua zabaltzeko. Europako estatuak ez dira noski kulturazko erakunde sozialak: botere-aparatuak dira. Horien Europaren aurrean, manifestuak egitea besterik ez zaie gelditzen Europako «intelektualei». *Europako Kultur Elkartearen* asmoa zabaltzeko.

Badirudi horien topaketa edo kongresuetako lelo bihurtuko dela, Veneziakoan Maria Antonietta Macciochi-k jaulki zuen slogana: «Kulturarena izango da Europa ala ez da ezer izango». Hitz berberak erabili zituen handik urtebetera, orain dela hilabete gutxi Madrilen egindako Europako intelektualen Kongresuak kaleratu zuen manifestuak: «Kulturazkoa izango da Europa ala ez da izango».

Basamortuko oihu patetikoen itxura hartzen dute manifestu horiek. Europako estatu inperialista bakoitzak, *bere* inperioa galdu ondoren, *bere* «kulturazko ondare historikoa» gordetzean ipintzen bait du *bere* kultur politikaren ahaleginik handiena. Botere estatalaren ezaugarri eta euskarri bihurtzen da orduan «kultur altxorra». Azken batez ez ote dira intelektual europarren kongresu eta manifestu horiek Europa inperialaren «kultura unibertsalaren» nostalgiaren adierazgarri? Estatuen Europaren projektua gainditzen eta hausten ez duen bitartean, horren gainegitura ideologikoa besterik ez da izango intelektualen «Europa kulturazkoaren» asmoa.



Goian aipaturiko Madrilgo Kongresuaren gaia *Kultur barruti europarra* izan zen. Kultur antropologiaren historia apurren bat ezagutzen duenak badaki, zein garrantzi handikoak izan diren «kultur barrutia» eta horrelako kontzeptuak, kulturen arteko historia azaltzean. Kongresuak ez zuen eduki, seguruenik, zientziazko terminologia zehatzik erabiltzeko asmorik. Baina nabari da Europaren kulturazko berezitasuna eta berberatasuna baieztatzeko gogoa. Badirudi Europaren «kulturazko unibertsaltasunaren» lekua, horren «kulturazko berberatasunak» —batasunak— hartuko duela orain: «Europar kultura unibertsala» munduan ezartzeko projektuak pott egin duenean, bere kultur barrutiaren bila hasi da Europa: leku kultural baten bila munduan.

Dramatikoena zera da testuinguru horretan: Kultur identitaterik gabe gertatzean, noraezean dabilela Kulturazko Europa hori. «American way of life» eskaintzen diote indarrik handienaz; funtsean kontsumismoaren kultura eta kulturaren kontsumismoa... Agian horixe dagokio egokien Estatu Batuen Europari. Badira, ordea, intelektualak —gure artean ere bai— Europaren «jatorri kulturazkora» jo nahi dutenak: Greziaren lilurak hainbat jakitun betetzen du, Krutwig eta lagunak bakarrik ez. Hizkuntza bakarrean oinarritu nahi du zenbaitek Europaren kulturazko batasuna: esperanto berrian; edota latin zaharrean, Erdiaroko batasunera iristeko, Venezian Anthony Burgess ingelesak proposatu zuenez.

«Herrien Europa»ren alde eta «Estatuen Europa»ren aurka Bartzelonan egin berria den HEMEGA/CONSEO edo Estaturik gabeko Europako Herrien Elkarguneak emana du bere Agiria, Europako hizkuntza eta kultura minorizatuen berreskurapen eta normalkuntzarako. Egia esan, Europaren kulturazko batasunik aipatu ere ez da egiten hor. Herri minorizatuen ikuspuntua Europaren kultura estatalista/inperialisten ukapena da, Herrien kultura-hizkuntzen berpizkunderako. Hortik bakarrik abia daiteke Europa berriaren kulturazko identitatea.

Euskal Herriak Europan bere lekua eta berberatasuna izatea kulturazko gudua irabaztetik etorriko omen zaio, berriki Michel Unzuetak adierazi duenez. Gudu hori, ordea, *Euskal Herrian bertan irabazi behar dugu* aurrenik, euskara arma nagusia dugularik... eta beste herri minorizatuekin batera.

**(*) Idazlea**

# Puntaren Puntan

## síndrome del norte

Mientras se discute y chalanea la nueva Ley de Policía, ahí queda para la historia el extraordinario argumento empleado por un abogado defensor en la Audiencia de Barcelona y que clarifica bastante la actitud de los «servidores del orden» que nos rodean en esta Euskadi de nuestras detenciones, controles, interrogatorios y demás zarandajas de cada día.

José Antonio Sánchez García, guardia civil, había matado a un travesti en el pasaje de la Concepción de Barcelona. Recogemos ahora textualmente de la noticia servida por las agencias: «En la vista, la defensa alegó en favor de su patrocinado que éste se encontraba emocionalmente desequilibrado por sus vivencias durante el tiempo que estuvo destinado en el País Vasco y que los psicólogos han bautizado con el nombre de síndrome del Norte».

*Es decir: ustedes tienen* que disculpar que este buen miembro de la Benemérita haya apretado el gatillo demasiado apresuradamente y se haya cargado a un travesti porque al fin y al cabo ha estado unos años en el «Norte» y eso imprime carácter. Un síndrome ¡vamos!

El argumento exculpatorio, como ven, no tiene desperdicio. Imagínense. Si al cabo de los años al buen guardia civil todavía le quedaba el tic de darle al percutidor, ¡qué no sería en sus años mozos, dueño y señor de una metralleta y convertido en Supermán, Roberto Alcázar y Pedrín de los valles, cruces y calles de Euskadi!

*En vez de denunciar* y *de gritar* lo de ¡que se vayan!, bien haríamos entonces en comprender y disculpar a estos enfermos el síndrome que te ponen contra la pared en un control y que bastante hacen con contenerse el tic y no disparar a bocajarro contra todos los jóvenes barbados o muchachas desenfadadas que por Euskadi pululan por las carreteras.

Demos gracias a Dios que las fuerzas del orden combaten como desesperadas su propio síndrome, porque de otra forma aquí no quedaría piedra sobre piedra y lo de la masacre de Gernika sería sólo un juego de niños ante las posibilidades de estos batallones afectados por el *bendito virus*. ¡Demos gracias a Dios por ese combate disciplinado contra sus propios impulsos!

J. ABIRANETA

# Hemeroteca

## ardanza: una gestión de transición

*(«El Correo Español», 24-1-86)*

(...) Los logros obtenidos en la gestión del presidente Ardanza son todos ellos elogiables, pero en la misma medida, modestos y domésticos. (...) Ardanza ha gobernado mediatizado por factores internos y externos de gran entidad. Los internos son evidentes: déficit de legitimación democrática, dadas las condiciones de su designación, y reticencias en sectores de su propio partido plasmadas en algunas actitudes del grupo parlamentario nacionalista. Los externos siguen siendo los consustanciales a la situación general del país. (...) En estas circunstancias, alcanza toda su expresividad la apreciación de que José Antonio Ardanza es un lehendakari para una situación de transición, empeñado en la administración de los resortes imprescindibles para que la maquinaria institucional responda a las exigencias básicas. Durante estos doce últimos meses, y pese a las expectativas abiertas al inicio del año pasado, poco ha respondido a lo esperado: el pacto de legislatura atraviesa por una situación crítica en grave riesgo de quebrarse; el posicionamiento frente a la violencia desde el Gobierno vasco no se ha consolidado como parecía inicialmente; la crisis económica no se endereza; los niveles de enfrentamiento entre la Administración autonómica y la central no han remitido; persiste la clara indefinición de esferas de actuación que corresponden al partido mayoritario y al Gobierno que sustenta, y no se ha avanzado un paso —ni uno solo— en la consolidación autonómica del País Vasco ni en el desarrollo del Estatuto de autonomía.

Si el objetivo que Ardanza, su Gobierno y el PNV se marcaron en enero de 1985 fue el de mantener la legislatura, a trancas y barrancas, con el logro de las leyes presupuestarias *necesarias para el funcionamiento institucional*, lo han conseguido. Si lo que se pretendía era superar fórmulas de Gobierno estériles, aunar criterios en el país, hacer madurar el sistema y desarrollarlo, dotar de contenido político serio la autonomía vasca y liderar a la opinión pública contra la violencia —no verbalmente sino con eficacia— no se ha acertado.

## un año de lehendakari

*(«Deia», 24-1-86)*

Sería de desear que, sin romper esa austeridad en los gestos que caracteriza a Ardanza desde el principio, existiese una mayor comunicación entre el lehendakari y su Gobierno con el pueblo. El ciudadano de a pie, y el pueblo en general, necesitan se les dé a conocer, de forma inteligible y concisa, las realizaciones y ventajas conseguidas; necesita también contagiarse de ese tradicional espíritu vasco de trabajo y de ese acendrado y entusiasta amor a Euskadi, lejos de todo fanatismo ignorante y destructor y de toda utopía alienadora y frustrante. Necesita entusiasmarse en el trabajo y en el patriotismo.




*("El País")*